

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Guk diseinatu eta ekoiztutako banbuzko boligrafoak edoizein pertsonarentzat zuzenduta daude, helduentzat, umeentzat... bereziki ikasleentzat eta enpresako zuzendaritzan lan egiten duten helduentzat zuzenduta daude, asko erabiltzen baitituzte boligrafoak. Hauenentzat, egunero erabiltzen duten materiala denez, kalitatezkoa izatea garrantzitsua da eta guk kalitatezkoak diren eta kutsatzen ez duten boligrafoak eskainiko ditugu. Esan bezala, gure helburua eskolako materiala egitea da, hasieran boligrafo batzuk eginez emango diogu hasiera gure enpresari eta poliki-poliki, poligrafo hauek bezeroei gustatzen bazaizkie eta arrakasta edukitzen badute, eskolako material gehiago ekoizten eta saltzen hasiko gara, beti ere inguruneari kalterik egin gabe, hau da, birziklatutako materiala erabiliz eta plastikoa saihestuz. Honez gain, webgune bat sortuko dugu, bezeroak "online"ez erraz erosi ditzaketen eta sare sozialak ere edukiko ditugu, bertan gure boligrafoei buruzko publizitatea egiteko eta gendeari guk eskaintzen ditugun produktuaren berri izateko eta horrela, guk salmenta gehiago izateko.

